

2021EKO MAIATZAREN 31N
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Arrunta

Data: 2021-05-31

Ordua: Arratsaldeko 20:00etan

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

EGUNEKO GAI ZERRENDA:

LEHENENGOA: Aurreko bilkuretako akta onartzeko proposamena.

- 2021/02/22 Ohikoa.

BIGARRENA: Alkateak emandako ebazpenen berri ematea.

HIRUGARRENA: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko proposamena.

LAUGARRENA: Eider Mujika Ormazabal zinegotziak kargu uztearen berri ematea.

BOSGARRENA: 2021. urterako soldatak igotzeko proposamena.

SEIGARRENA: 2021-KALD-000002-01 kreditu aldaketa onartzeko proposamena.

ZAZPIGARRENA: 2020. Ekitaldiko Kontu Orokorra hasiera batez onartzeko proposamena.

ZORTZIGARRENA: Frontoian eta plazan berrikuntza batzuen proiektua onartzeko proposamena.

BEDERATZIGARRENA: Igogailu eta ibilbide irisgarri baten eraikitze exekuzio proiektua onartzeko proposamena.

HAMARGARRENA: Alkatearen arduraldi eta ordainsarien araubidea zehaztea.

HAMAIKAGARRENA: Erregu eta galderak.

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiari, 2021eko maiatzaren 31n, arratsaldeko 20:00etan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziarekin.

Zinegotziak:

- Alain Barandarain Ayerza (20:00)
- Leire Talavera Etxeberria (20:00)
- Joel Wepsiec Mariezcurrena (20:00)

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari - kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuak azterketari ekiten da.

GAI ZERRENDA:

LEHENENGOA PUNTUA:

AURREKO BILKURETAKO AKTA ONARTZEKO PROPOSAMENA

- 2021/02/22 Ohikoa.

Oharrak aurkeztu ez direnez, idatzita dauden era berean aho batez onartzen dira.

BIGARREN PUNTUA:

ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA

Indarrean dagoen Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko (2568/1986ko E.D. azaroaren 28koa) 42. artikuluan adierazten duen ondorioetarako, Batzarrari, ohiko azken bileraz gero, Alkatezako eman dituen ebazpenak aditzera ematen zaizkio. Hain zuzen ere 2021/016tik 2021/056ra dekretura doazenak, biak barne, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN PUNTUA:

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAN (UEMA) SARTZEKO PROPOSAMENA

Ikusirik Elduaingo herritarren gehiena euskalduna delarik eta gorporazioaren borondate politikoa Elduaingo Udalak euskara hutsez funtzionatzea izanik.

Kontuan harturik UEMAn estatutuak onartu behar direla eta gorporazioaren bi kide izendatu behar direla, bertan ordezkari gisa aritzeko eta koordinazio lanak egiteko.

Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabaki du:

LEHENA : UEMAKo estatutuak hitzez hitz onartzea behin behineko izaeraz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki honen berri emanez, honen kontra interesa duten guztiek legeak agindutako epean bere oharpenak aurkez ditzaten, inongo oharpenik agertzen ez baldin bada erabakia behin betikoa bilakatuko delarik, beste inolako erabaki berriren beharrik gabe.-

BIGARRENA : Datozen udal aurrekontuetan UEMari dagokion kuota ordaindu ahal izateko nahikoa kreditua aurreikustea.

HIRUGARRENA : Elduaingo Udalaren ordezkari gisa UEMA erakundearen aurrean, OIHANA AMUNDARAIN ZUBILLAGA eta LEIRE TALAVERA ECHEVERRIA, bere ordezkari izendatzea.

LAUGARREN PUNTUA:

EIDER MUJIKA ORMAZABAL ZINEGOTZIAK KARGU UZTEAREN BERRI EMATEA

2021eko martxoaren 22an Udalean sarrera izan zuen Eider Mujika Ormazabal Udaleko Zinegotziaren idatzia.

Bertan, 2019ko maiatzaren 26ko udal hauteskundeetako emaitzen ondorioz eta 2019ko ekainaren 15z gero burutzen duen zinegotzi kargu izateari borondatez uko egiten ziola adierazten zen.

Eta azaroaren 26ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren 9.4 artikuluan eta ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde Erregimen Orokorren Legeko 182. artikulua xedatutakoa betetzeko, bertaratutakoek aho batez,

ERABAKI DUTE:

BAKARRA: Eider Mujika Ormazabalek egin duen zinegotzi karguaren ukapenari buruzko adierazpenaren berri hartzea, herriaren alde egindako lanengatik eskerrak emanez.

BOSGARREN PUNTUA:

2021. URTERAKO SOLDATAK IGOTZEKO PROPOSAMENA

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

2021eko ordainsari-igoerei buruzko informazio-zirkularra

Joan den 2020/12/31n, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legea argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, 111. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.

(...)Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokienez aldaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2020koen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien zirkunstantzia pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.

Aurrekoa ikusita, abenduaren 30eko 11/2020 Legea indarrean sartu ondoren, eta Eudelek aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzeak jotzen da euskal udalei honako hau egitea:

GOMENDIOA:

11/2020 Legearen 18 Bi artikuluaren edukiari dagokionez, Eudelek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %0,9, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.

Gomendio horren bidez, Eudelek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, eta horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berri bat lortu ahal izateko.

Era berean, EUDELek berretsi du garrantzitsua dela "UDALHITZ 2008-2010 Akordioa" bere terminoetan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean baitago haren berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio du. Ildo horretan, gaur egungo UDALHITZ 2008-2010 betetzeak izan ditzakeen hutsuneak konpontzeko tresnak, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako "jarraipen-mahaiak" izan beharko luke. Gogorarazten dizuegu mahai hauen xedea dela, soil-soilik, egungo UDALHITZ

2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen balizko ez-betetze puntualak konpontzeko akordioak erraztea, eta ez dutela ireki behar kanpoko gaiei buruzko edozein negoziazio-prozesu, zeinaren aplikazio-eremua EUDEL-en eta sindikatuen arteko UDALHITZ Negoziazio Mahai Orokorrean dagoen.

Dokumentua ikusita, bertaratutakoek aho batez,

ERABAKI DUTE:

BAKARRA: 2021 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioa bere osotasunean onestea eta aplikatzea, ondorengoak izanik: "Sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %0,9, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz".

SEIGARREN PUNTUA:

2021-KALD-000001-01 KREDITU ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Alkatetzak agindurikoa betez Idazkaritza-Kontu-hartzaitzak aurtengo udal aurrekontuari dagokion kreditu aldaketa 01/2021 espedientea osatu du eta berau ikusi da.

Kod.	Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
b	1 628.01.152.20 2020	Artxiboaren antolaketa	50.778,38
	1 642.01.151.00 2020	HAPO. Hasierako onarpena	9.680,00
	1 609.01.165.00 2020	Autobus geltokia argizatzea	1.882,76
	TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		62.341,14

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
A	2 870.01.934.00.2021	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GERAKINAK	62.341,14
FINANTZAKETA GUZTIRA			62.341,14

Kontuan harturik espediente honetan barneraturiko Alkatetzaren Memoriak diona, non agerian jartzen da, funtsean, espediente honek honako beharrei erantzuten diela.

Hori dela eta, Udalbatzak, aho batezko adostasunez, **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: 2021eko Udala Aurrekontuaren Kreditu Aldaketa 01/2021 kreditu aldaketa proposamena hasierako izaeraz onartzea.

BIGARRENA: Kreditu aldaketa hau arauzko eran jendaurreko erakustaldian jartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA:

2020. EKITALDIKO KONTU OROKORRA HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA

Ikusirik maiatzaren 12an Kontuetako Batzorde Bereziak eginiko bileran onarturiko diktamena, errekerituriko espedientea aldeko informatuz.

Udal Plenoari egiten zaio jarraiko,

ERABAKI PROPOSAMENA:

BAKARRA: Onartzea 2020ko Kontu Orokorraren espedientea.

Aho batezko adostasunez, aurreko erabaki proposamena onartzen da.

ZORTZIGARREN PUNTUA:

FRONTOIAN ETA PLAZAN BERRIKUNTZA BATZUEN PROIEKTUAREN ADMINISTRAZIO-KONTRATUA ESLEITZEKO BETE BEHARREKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ) ONARTZEKO PROPOSAMENA

Kontuan harturik proiektua Zebralab-ek idatzi duela eta lanen aurrekontua, 46.381,75eurokoa dela (BEZ sartu gabe): 38.976,26€ (exekuzio materiala), 5.066,91€ (gastu orokorrak) eta 2.338,58€ etekin industrialak.

Kontuan harturik aurrekontuaren arabera, kontratazio organoa Udalbatzarra dela.

Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabaki du:

LEHENA: Onartzea frontoian eta plaza berrikuntza batzuen proiektua, Zebralab-ek egindako 46.381,75 eurokoa (BEZ sartu gabe): 38.976,26€ (exekuzio materiala), 5.066,91€ (gastu orokorrak) eta 2.338,58€ etekin industrialia

BIGARRENA: Obra esleitzeko baldintza plegu administratiboa eta plegu teknikoa onartzea

HIRUGARRENA: Kontratu honek eragingo duen gastuari aurre egiteko 2021 urteko udalaren aurrekontutan adinako kreditua egozteko konpromisoa hartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA:

IGOGAILU ETA IBILBIDE IRISGARRI BAT ERAIKITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUAREN ADMINISTRAZIO-KONTRATUA ESLEITZEKO BETE BEHARREKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ) ONARTZEKO PROPOSAMENA

Kontuan harturik proiektua Zebralab-ek idatzi duela eta lanen aurrekontua, 94.187,07 eurokoa dela (BEZ sartu gabe): 79.148,80€ (exekuzio materiala), 10.289,34€ (gastu orokorrak) eta 4.748,93€ etekin industrialia.

Kontuan harturik aurrekontuaren arabera, kontratazio organoa Udalbatzarra dela.

Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabaki du:

LEHENA: Onartzea igogailu eta ibilbide bat eraikitzeko exekuzioaren proiektua, Zebralab-ek egindakoa 94.187,07 eurokoa (BEZ sartu gabe): 79.148,80€ (exekuzio materiala), 10.289,34€ (gastu orokorrak) eta 4.748,93€ etekin industrialia.

BIGARRENA: Obra esleitzeko baldintza plegu administratiboa eta plegu teknikoa onartzea

HIRUGARRENA: Kontratu honek eragingo duen gastuari aurre egiteko 2021 urteko udalaren aurrekontutan adinako kreditua egozteko konpromisoa hartzea

HAMARGARREN PUNTUA:

ALKATEAREN IZENDAPEN EKONOMIKOA EZARTZEA.

Apirilaren 2ko toki jardunbidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 legeko 5.xedapen gehigarriaren 11.atalak (27/2013 legearen 1.34 atalak emandako idazkera Lurralde Historietako Foru Organoak soldata eta asistentzia ordainen multzoaren gehiengoak arautu ahal izango dituzte korporazio kideentzat, kargu politikoen eta beste gainontzeko pertsonalen soldatak.

Aurrekoaren garapenerako 1/2015 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztekoa (GAO 2015/07/01) arautzen du gaia.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (7/1985) 75. 3 artikuluan jasotzen du alkate eta zinegotzien liberazioa:

3. - Ez arduraldi eskusiborik ez arduraldi partzialik ez duten toki-korporazioko kideek baino ez dituzte jasoko beren korporazioko kide anitzeko organoetako bilkuretarako benetan joatearren dagozkien laguntzak, korporazioko osoko bilkurak adierazitako kopurukoak

Honako proposatzen da:

Alkateari dagokien izendapen ekonomikoa ezartzea. Izendapena kalkulatzeko ondoren irizpideak ezarriko dira:

Kontzeptua	Asistentzia
Hileroko gastuak	340,00 €

Alkateak gaia bozkatzea agindu du.

Eta besterik gabe, proposamena ikusita gaiaren bozketa egin da.

Hori dela eta, Udalbatzak, aho batezko adostasunez ,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Proposamena aurkeztu izan den moduan onartzea kontu-hartzaileari honen berri emanez.

BIGARRENA: Erabaki honetan finkatutako ordainsariak eragina 2021eko ekainetik aurrera izango du.

HAMAIKAGARREN PUNTUA:
ERREGU ETA GALDERAK

Alkateak Udalbatzako gainerako partaideei aukera eman die egoki iritzitako galderak eta eskariak egin ditzaten.

Besterik gabe, 20:30ean, Presidentetzak batzarra amaitutzat jo du, eta akta hau egin dut, nik, idazkari honek, gertaturiko guztia zehatz jasota. Fede ematen dut

O.E.
Alkateak,

Udaleko idazkari - kontu-hartzailea,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Maria Pilar Garmendia Miguel